



CENTRO INTEGRADO **ESCUELA
DE EDUCADORAS Y EDUCADORES**

HEZITZAILE ESKOLA
IKASTETXE INTEGRATUA

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOA

Haur Hezkuntzako

GOI MAILAKO TEKNIKARIA

MODALITATE PRESENTZIALA **GAZTELERAZ** ETA **EUSKARAZ**

ONLINE-KO MODALITATEA **GAZTELERAZ**

1986az geroztik, gure Eskolak gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzearen profesionalak prestatzen ditu.

Gure Hezkuntza Eskaintza osoa "Oinarritzko hezitzailea" kontzeptuaren bidez egituratzen dugu. Ezaugarri komun eta funtsezkoenen aldeko apustua egiten dugu pertsonekin eta taldeekin zuzenean esku hartzeko, gizartearen eta hezkuntzaren ikuspegitik.

Ezaugarri komun horiek harreman kualifikatu batetik pertsonekin egiten den lanaren eskakizunekin lotuta daude. Horregatik planteatzen dugu "Jakitea", "Egiten Jakitea" eta "Izaten Jakitea"- ren beharra.

Helburu honekin lotuta, eskaintzen ditugun lanbide heziketako ziklo guztietan Enpresako Praktikak egiten dira lehen mailatik hasita, Metodologia Aktiboak erabiltzen ditugu eta ikasleen Laguntza Pertsonalizatua egiten dugu.



www.escuelaeducadores.educacion.navarra.es

Palacio Ezpeleta - Calle Mayor, 65
31001 - PAMPLONA
848 43 09 70



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
Hezkuntza Departamentua
Departamento de Educación

TodoFP.es

GAITASUN OROKORRA

Titulu honetako gaitasun orokorra Haur Hezkuntzako lehen zikloko haurrentzako hezkuntza proiektu eta programak diseinatu, inplementatu eta ebaluatzean datza, esparru formalean, Haur Hezkuntzako espezializazioa edo gradu titulu baliokidea duen maisu edo maistra batek egindako proposamen pedagogikoari jarraituz, eta etapa osoko haurrentzakoak, berriz, esparru ez-formalean, ingurune seguruak sortuz eta beste profesional batzuekin eta familiekin batera lan eginez.

HAUR HEZKUNTZAKO HEZITZAILEAK esku-hartze soziohezitzaile arloko profesionalak dira eta haurren garapen integrala zaindu eta laguntzen dute, beti ere harreman afektibo pribilegiatua ezarriz, haurra pertsona gisa errespetatzen ahaleginduz. Eguneroko bizitzako eta jolaseko jardueren balio hezitzailea ezagutzen dute, eta haur bakoitzaren jarduera autonomorako baldintza egokiak sortzen dituzte, adierazteko modu desberdinak sustatuz.

Era berean, familiekin esku hartzen dute eta lan-taldean aritzen dira hainbat profesionalekin.

LANBIDE JARDUERAK

Profesional horiek hezkuntza formalaren (haur-eskolak) eta ez-formalaren (haurtzaindegia, etxe-lagunak, familia-espazioak, ludotekak, liburutegiak...) sektorean eta haurrak zaintzeko gizarte-zerbitzuen sektorean jarduten dute.

LANBIDE ETA LANPOSTU GARRANTZITSUENAK HAUEK DIRA:

- Haur hezitzailea etaparen lehen zikloan (0-3 urte), ikastetxe publikoetan eta pribatuetan.
- Haur-hezitzailea arrisku sozialeko egoeran dauden 0-6 urte bitarteko adingabeekin lan egiteko programa edota erakundeetan edo familia-laguntzak zerbitzuetan.
- Haur-hezitzailea haurren aisialdiko eta denbora libreko programa edota jardueretan.
- Haur-hezitzailea 0 eta 6 urte bitarteko haurrekin: ludotekak, kultura-etxeak, liburutegiak, ikastetxeak, aisialdi-zentroak, baserri-eskolak ...

(....)

LANBIDE MODULUAK

LANBIDE MODULUAK

1 MAILA

ORDUAK

Astean | Guztira

HAUR HEZKUNTZAREN DIDAKTIKA	4	130
HAURREN AUTONOMIA PERTSONALA ETA OSASUNA	6	190
HAURREN JOLASA ETA HORREN METODOLOGIA	7	220
INGELESA I	2	60
GARAPEN KOGNITIBOA ETA MOTORRA	5	160
GARAPEN SOZIOAFEKTIBOA	3	100
LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTAZIOA	3	100

LANBIDE MODULUAK

2 MAILA

ORDUAK

Astean | Guztira

ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA	5	160
GIZARTE TREBETASUNAK	3	100
FAMILIEKIN ESKU HARTZEA ETA ARRISKU SOZIALA DUTEN ADINGABEKOEI LAGUNTZEA	3	100
HAURREI LAGUNTZEKO PROIEKTUA	3	100
LEHEN SOROSPENAK	2	70
ENPRESA ETA EKIMENA	2	70
LANTOKIETAKO PRESTAKUNTZA	12	430

1



Lanbide-Inguruneetako Prestakuntza lehen ikasturtetik

2



Metodologia Aktiboetan oinarritutako Ikaskuntzak

3



Prestakuntza-laguntza Pertsonalizatua